

INGENIARITZA ZIBILEKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

***HIRIKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIAREN
DISEINUA ETA DIMENTSIONAKETA NEILAN,
BURGOS***

11.ERANSKINA: ERAIKUNTZA HONDAKINEN KUDEAKETA.

Ikaslea: Alba Gallo Anda

Zuzendaria: Maite de Blas Martín

Ikasturtea: 2019-2020

Data: Bilbon, 2020ko otsaila.

AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA.....	2
1.SARRERA	3
2. HONDAKINEN BALIOZTAPENA.	4
3. HONDAKINEN PREBENTZIO NEURRIAK OBRAN.	5
4. HONDAKINEN KUDEAKETA.	5

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Europako Hondakin Zerrendan agertzen diren hondakinak.	4
---	---

1.SARRERA

Aurkezten den eranskinean hondakin-uren araztegiaren eraikuntzan zehar sor daitezkeen hondakinen balioztapena egingo da, indarrean dauden legeak kontuan izanik.

2. HONDAKINEN BALIOZTAPENA.

Hondakin-uren araztegiaren obra zibila egiten den heinean Europako Hondakin Zerrendaren (EHZ) bidez sailkatuko diren hondakinak sortuko dira.

Europako Hondakin Zerrendak hurrengo aginduaren bidez definiturik geratzen da: *“Otsailaren 8ko MAM/304/2002 agindua, non hondakinen balioztapen eta deuseztatze ekintzak eta Europako Hondakin Zerrenda argitaratzen dira”*. [43]

Eraikuntza eta eraispenerako hondakinak EHZ-ren 17.kapituluan biltzen dira, modu horretan 1.taulan proiektu honen eraikuntza fasean sor daitezkeen eta baimendutako kudeatzaile batek obratik eraman behar dituen hondakinak azaltzen dira.

KODEAK	DESKRIBAPENA
17 01 01	Hormigoia.
17 01 02	Adreiluak.
17 02 01	Egurra.
17 02 03	Plastikoa
17 04 02	Aluminioa.
17 04 05	Burdina eta altzairua.
17 04 11	17 04 10 kodean zehaztutako kable ezberdinak.

1. Taula: Europako Hondakin Zerrendan agertzen diren hondakinak. Iturria :MAM/304/2002

Europako Hondakin Zerrendan agertzen diren material hauetaz aparte, obran, Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren [44] arabera hondakin moduan sailkatuko ez diren lur eta arroka soberakinak ere sortuko dira.

3. HONDAKINEN PREBENTZIO NEURRIAK OBRAN.

- Lanean dauden pertsona guztiek hondakinen kudeaketari buruz Zuzendaritza Teknikoak zehazten dituen araudiak eta betebeharrak ezagutu behar dituzte.
- Obraren exekuziorako behar diren materialen kantitatea optimizatu beharko da. Gehiegizko materiala hondakinen jatorria da.
- Materialak obratik kanpo pilatuko dira, enbalatuak eta babestuak, erabili behar izan arte. Modu horretan apurketak sortzen dituzten hondakinak saihestuko dira.
- Hondakinen sailkapena egiteko beharrezkoak diren edukiontziak egon behar dira. Edukiontzi bakoitzean doan materialaren sailkapena hondakina sortzen denean egin behar da, jatorri ezberdinetako hondakinak nahastu gabe.
- Edukiontziak, sakuak, gordailuak eta biltegitratze edukiontzian modu egokian etiketatutak egon behar dira.
- Eraikitze materialen enbalajeen murrizpena.
- Enbalajeak arindu.
- Ontzi tolesgarriak: kartoizko kutxak, botilak, etab.
- Kargaren optimizazioa paleten bidez.
- Produktuen kontzentrazioa.
- Bizitza erabilgarri handien daukaten materialen erabilpena.
- Ingurumen ziurtagiriak daukaten materialak erabiliko dira.
- Obran dagoen edukiontzi bakoitzaren kontua eraman.
- Materialen horniketa kontratuetan ondo zehazturik egon behar da materialen hornitzaileak enbalaketaz arduratuko dela.
- Areak eta hartxintxarrak oinarri zurrun batean pilatuko dira.
- Obran, hurbilen dauden hondakin kudeatzaileen katalogo bat izan.

4. HONDAKINEN KUDEAKETA.

Hondakinen Plan Integratu Nazionalak hondakinen kudeaketa egokia sustatzea du helburua, horretarako hauen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapenaz (3Rs) aparte baita ere prebentzio neurriak, balioztapena eta ezabapena bultzatuko ditu.

Nahiz eta proiektuaren agirietan zehazturik ez agertu, lur-mugimenduen ondorioz soberan dauden lurra obraren inguruan dauden zelaiguneetan zabaldu eta tinkotu daiteke, modu horretan zabortegira garraiatu beharreko bolumena txikituko da.

Gainontzeko hondakinen kasuan, aurreko atalean azaldu den bezala, ezin dira herriko zabortegira bota, hauek baimendutako kudeatzaile baten bidez behar diren moduan tratatuak izan behar direlako. Normalean hondakinen kudeatzaileek hondakin mota ezberdinen arduradunak dira, beraz kudeatzaile bakar batek beharrezkoa izango da 1.taulan agertzen diren hondakinak modu egokian tratatzeko.